# GOBERNU BILERA
Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO
Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriak 22**

**Vitoria-Gasteiz, 22 de octubre de 2024**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@euskadi.eus

**Lehendakaritza**

## EUSKAL GIZATALDEETAKO PERTSONEN PREMIA LARRIKO EGOEREI ERANTZUTEKO LAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzak Euskal Etxeetarako 212.000 euroko laguntza-saila onartu du gaur. Euskal gizataldeetako pertsonen premia larriko egoerei eta laguntza-beharrei erantzuteko bideratuko da diru hori.

Gaur onartutako laguntzei esker arreta jasoko dute gizarte-bazterketako egoera larrian dauden pertsonek, dela herrialde batzuetan izandako moneta-oszilazioen eta ekonomia-gabezien egoeragatik, dela adinagatik, dela gabezia-egoerengatik, dela osasun-krisialdiengatik edota bat-batean sortutako istripuen ondoriozko ezgaitasunengatik.

Eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Euskal gizataldeko kidea direla egiaztatzea.

b) Atzerrian bizitzea.

c) Laguntzako beharrei edo premia larriko egoerei aurre egitea ahalbidetzen duten ondasunik edo diru-sarrerarik ez edukitzea.

d) Etxe partikularretan bizitzea, eta araudi edo estatutuengatik laguntza eman behar dieten talde, komunitate edo erakundeetako kide ez izatea.

Laguntzak emateko orduan familiako egoera ekonomikoa hartuko da kontuan herrialdeko batez besteko errentarekin lotuta, bai eta osasun-gertakizunaren edo premia handiko egoeraren larritasuna eta eskaera beharretara egokitzea ere.

Eskatutakoaren ehuneko 100era iritsi ahal izango dira laguntzak, eta Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen oinarrizko errentaren zenbatekoa izango da muga; nolanahi ere, osasun-gertakizunei aurre egiteko laguntzek ez dute muga hori izango.

2003an abiarazi zenetik, Eusko Jaurlaritzak urtero deitu du laguntza-programa hau, eta horren bidez laguntza jaso dute 70-112 familiak; gehienbat Argentina, Venezuela, Kuba, Txile eta Uruguaikoak  izan dira onuradunak.

**Segurtasuna**

## SEGURTASUN SAILAK IBM-REN HARDWARE ETA SOFTWARE SISTEMA EGUNERATUKO DU

Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio gaur Segurtasun Saileko IBMren hardwarea eta softwarea eguneratzeko administrazio-kontratuari. Kontratuaren xedea izango da sistemaren zenbait lizentzia hornitzea, bai eta IBM biltegiratze-sistemaren nodoen eguneratze teknologikoa, instalatutako oinarriaren lizentzien euskarri-zerbitzua eta mantentze-zerbitzua eta IBMren lizentzia batzuei lotutako Euskarri Tekniko Aurreratuko zerbitzua ere. Horrela, kontratua 2025eko urtarrilaren 1etik 2027ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, 20 milioi euroko aurrekontuarekin, eta honela banatuko dira:

- 2025. urtea: 8.066.509,71 €
- 2026. urtea: 6.801.733,19 €
- 2027. urtea: 5.839.714,49 €

Horrela, kontratuaren helburua honako hau izango da:

- Gaur egun dauden prozesu-ekipoak eta euskarria berritzea.
- Biltegiratze-sistema zabaltzea eta eguneratzea, eskaera berriei erantzuteko.
- Instalatutako oinarriko software-lizentziak eguneratzea eta berritzea.
- IBMko produktu guztien euskarri- eta mantentze-zerbitzuak, bai hardwarearenak, bai softwarearearenak.

Segurtasun Saileko Telekomunikazioak eta Sistema Informatikoak Kudeatzeko zuzendaritza arduratzen da Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistemaren euskarri teknologiko izango diren informazio- eta telekomunikazio-sistemak diseinatu, ezarri eta kudeatzeaz, eraldaketa digitalean berrikuntza eta lidergo estrategia bati jarraituz. Helburua da Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sisteman parte hartzen duten eragileek soluzio teknologikoki aurreratuak eta funtzionalki egungo eta etorkizuneko beharretara egokituak izatea.

**Osasuna**

## OSASUN SAILAK 1,7 MILIOI EURO BAINO GEHIAGO JARRIKO DITU ADIKZIOEN ARLOKO TOKIKO PLANAK GARATZEKO LAGUNTZETARAKO

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du komunitate-esparruan adikzioen tokiko planak garatzen laguntzeko Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren 2024ko ekitaldiko laguntza ekonomikoen deialdiaren Agindua.

Laguntza horietan Euskadin diharduten toki-erakundeentzako eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako 1.735.900 euro daude. Laguntzak bideratzen dira komunitate-prebentzioko programak garatzera, adikzioen arloan arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak egitera eta jokabide osasungarriak sustatzera, baita zenbait toki-erakundetako adikzioen komunitate-prebentzioko lantalde teknikoak mantentzera ere.

Tokiko esparruan, eta osasunekoak ez diren beste sektore batzuetatik, egiten diren jarduketetan osasuna sustatzeko helburuarekin egiten du Osasun Sailak laguntza horien deialdia, betiere Euskadiko VIII. Adikzio Planaren jarduketa-ardatzetan hobekien instalatutako programei eta proiektuei eutsi dakien, premia berriak identifika daitezen, premia horiei arreta emango dieten proiektu berriak babestu daitezen, eta ekimen berriak hobetzen lagundu dadin.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak eta Osasun Sailak adikzioen fenomenoari komunitate-esparrutik heltzeko eta erantzuteko konpromisoari eusten diote, Euskadiko VIII. Adikzio Planaren arabera. Hain zuzen, plan hori da Euskadin adikzioen arloan garatzen diren estrategia eta esku-hartze guztiak planifikatu, antolatu eta koordinatzeko tresna nagusia.

Zehazki laguntza ekonomikoa bi dirulaguntza-ildotan banakatzen da:

1. Adikzioen komunitate-prebentziorako tokiko planen garapena: 1.174.135 euro.
2. Tokiko planei atxikitzen zaizkien adikzioen prebentzio komunitarioko programen eta, jardun-esparru horretan, jokabide osasungarriak sustatzeko programen garapena: 561.765 euro.

Agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da aurkezpen-epea, eta 15 egun baliodun igaro ondoren amaituko da, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

**Osasuna**

## GOBERNU KONTSEILUAK TOKIKO ESPARRUAN OSASUNA SUSTATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA ONARTU DU

- **Osasun Sailak 250.000 € jarriko ditu laguntza horietarako, herritarren bizi-baldintzak hobetzera bideratzen diren proiektu partehartzaileak finantza daitezen**
- **Osasuna sustatzea helburu duten eta jarduera fisikoarekin, elikadura osasungarriarekin, ongizate emozionalarekin eta osasuna eta ongizatea erraztuko dituzten inguruneekin lotuta egon daitezkeen jarduketak lagunduko dira diruz**

Gobernu Kontseiluak, Osasun Sailak eskatuta, onartu ditu, 2024an Euskadiko tokiko esparruan, komunitate-partaidetzako prozesuen arloan **osasuna sustatzeko jarduketetarako dirulaguntzen** deialdiaren oinarriak**.**

Laguntza horien helburua da komunitate-partaidetzako proiektuak finantzatzea. Proiektu horiek bideratu beharko dira bizikidetza-espazioan bizi direnen bizi-baldintzak hobetzera, osasuna eta ongizatea hobetzeko prozesuetan ekintza indibidual eta kolektiboko gaitasunak indartzera eta gizarte-loturak eta -kohesioa sendotzera, barnean direla zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboak.

Horretarako, osasuna sustatzea helburu duten eta **jarduera fisikoarekin, elikadura osasungarriarekin, ongizate emozionalarekin eta osasuna eta ongizatea erraztuko dituzten inguruneekin** lotuta egon daitezkeen jarduketak lagunduko dira diruz, baita komunitatearen osasunerako eta ongizaterako garrantzizkoak diren beste alderdi batzuk ere.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, aurten, **250.000 euro** jarri ditu, guztira, laguntza-ildo horretan, eta, hala, erantzuten dio Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak tokiko esparruan osasuna sustatzearen alde egindako apustuari, herritarren osasun-egoera hobea lortze aldera.

Laguntza horiek bateragarriak izango dira beste administrazio publiko batzuek edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek —nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak— helburu bererako emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Edonola ere, ezin izango dira 8.000 eurotik gorako laguntzak izan proiektu bakoitzeko, ezta, proiektu bat baino gehiago aurkeztuz gero, 15.000 eurotik gorakoak ere erakunde onuradun bakoitzeko.

Laguntzak bitarteko elektronikoen bidez eskatu ahal izango dira, agindua EHAAn argitaratzen denetik hilabeteko epean, eta Euskadiko udalerriek, mankomunitateek eta gainerako toki-erakundeek jaso ahal izango dituzte, baita tokiko erakunde autonomoek eta tokiko merkataritza-sozietateek ere.

**Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza**

**ERABAKI-PROPOSAMENA, IKERBASQUE FUNDAZIOARI MILIOI BAT ETA EHUN MILA EUROKO (1.700.000 €) ZUZENEKO LAGUNTZA EMATEKO DENA, IKERBASQUE RESEARCH ASSOCIATES LANGILEEN IKERKETA-KARRERA BULTZATZEKO**

Ikerbasqueren karrera zientifikoan zubi bat ezartzeko eta, ondoren, ikertzaile seniorren goi-mailako kategorian sartzeko (Research Professors, adibidez), Ikerbasquek Ikerbasque Research Associates programa jarri zuen abian 2016an. Research Associates programa berri honekin, Euskadin ikertzaile gazteentzat karrera zientifikoa garatzeko proposamen integral bati erantzuten zaio, baldintza jakin batzuetan unibertsitate edo ikerketa-zentro batean kontratu egonkor bat lor baitezakete Ikerbasque programaren barruan.

Ikerketa Zuzendaritzak, 1.700.000 euroko zuzeneko laguntzaren bidez, 55 Ikerbasque Research Associates finantzatzen lagundu nahi du, hain zuzen ere Ikerbasque Research Fellow kategoriatik Ikerbasqueren barne-sustapena egin duten pertsonak.

**Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza**

**ERABAKI-PROPOSAMENA, BCMATERIALS-I ZORTZIEHUN MILA EUROKO (800.000 €) ZUZENEKO LAGUNTZA EMATEKO DENA, ENERGIA, NANOKIMIKA ETA INGURUMENA ERREMEDIATZEKO ETA MIKROFABRIKAZIORAKO MATERIALETAKO LABORATEGIAK EZARTZEKO**

BCMaterials nazioarteko erreferentziazko zentro gisa finkatzeko, funtsezko elementu bat zentroaren hedapena da, ildo eta arlo desberdinetarako ikertzaileak eta ikerketa-laborategi espezifikoak sartzeko espazio egokiak sortuz.
Laguntza horri esker, lau laborategi ezarriko dira, gure ingurune hurbileneko behar zientifiko eta teknologikoei erantzuteko, bai unibertsitate mailan, bai industria eta gizarte mailan ere.
Ikerketa Zuzendaritzak, 800.000 euroko zuzeneko laguntzaren bidez, energiaren, nanokimikaren eta ingurumena erremediatzeko eta mikrofabrikaziorako materialen laborategien ezarpena finantzatzen lagundu nahi du.

**Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza**

## AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ IRAGARTZEN BAITA IKERTZAILE DOKTOREENTZAKO MUGIKORTASUN-PROGRAMARAKO DEIALDIA

Agindu honen xedea da dedikazio esklusiboarekin ikerketa-zentroetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdia egitea, norgehiagoka-erregimenean, bi helburu hauek betetzeko: batetik, I+G+B zentro eta erakundeetako ikertzaileen eta unibertsitateko irakasleen mugikortasun geografikoa bultzatzea, eta, bestetik, ikerketa-taldeen lehiakortasuna eta gaitasuna hobetzea.

Egonaldian zehar, ikertzaileek ikerketa-proiektu bat garatu beharko dute, zeina talde hartzailearen lan-ildoan integraturik egongo baita, edo, bestela, goi-mailako lotura eta trukeak ezartzera bideratutako jarduerak burutu beharko dituzte.
Ikertzaile doktoreentzako mugikortasun-programak bi modalitate ditu:

- A modalitatea: ikertzaile seniorren mugikortasuna, langile iraunkorrei zuzendua.
- B modalitatea: ikertzaile juniorren mugikortasuna, langile ez-iraunkorrei zuzendua. Modalitate honetan, eskatzaileak finkatze-bidean dauden irakasle eta/edo ikertzaileen plaza batean egon beharko dira.

Zehazki, honako programa edo kategoria hauetako langileak onartuko dira: Ikerbasque Research Fellow programa, irakasle Doktore Laguntzaileak, irakasle laguntzaileak, Ramón y Cajal programa, Juan de la Cierva programa, Miguel Servet programa.

**Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza**

**ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILAK NEKAZARITZAREN ETA ARRANTZAREN SEKTOREETAKO IBILBIDE PROFESIONALAK AITORTZEKO 2024KO «GONZALO NÁRDIZ» XXI. SARIAK DEITU DITU**

- **Pertsonei edo kolektiboei zuzenduta: Jabier Herrerok sortutako "*Hiru elementuak*" izeneko artelanaren brontzean galdatutako eskultura**

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak nekazaritzaren eta arrantzaren sektoreetako ibilbide profesionalak aitortzeko 2024ko «***Gonzalo Nardiz Bengoetxea***» **Sariak** deitu ditu. Sarien onuradun izan daitezke nekazaritzaren eta arrantzaren sektoreetan egindako lanagatik nabarmendu diren eta euren ibilbide profesionala nagusiki Euskadin, denbora luzean eta finkatuta, garatu duten pertsona edo kolektiboak.

**Amaia Barredo** sailburuak Gobernu Kontseiluan azaldu duenez, sarietarako hautagaiak Euskal Autonomia Erkidegoko **bi sektore-eragileren babesarekin** aurkeztu beharko dira **gutxienez**, eta, edonola ere hautagai izendatutako pertsonaren edo kolektiboaren onarpena izan beharko dute.

**Proposamenak** egingo dituzten sektore-eragile horien artean egongo dira, besteak beste, sindikatu-izaerako erakunde profesionalak; nekazaritza- eta arrantza-sektoreko elkarte profesionalak eta enpresarialak, bai eta horien federazioak eta konfederazioak ere; bestelako elkarte eta federazioak; fundazioak; arrantzaleen kofradiak; kooperatibak; eta nekazaritza- eta arrantza-sektoreetako eta elikagai-industriako profesionalak. Hautagaiak aurkezteko **epea** hilabetekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

2024ko deialdirako sarietan ohorezko sari bana emango zaizkie eta aintzatespen publikoaren ekitaldia egingo da. Aintzatespen-ekitaldi horretan Jabier Herrerok *Gonzalo Nardiz Bengoetxea* sarietarako beren-beregi sortutako "**Hiru Elementuak"** izeneko artelanaren brontzean galdatutako hiru eskultura emango zaizkie.
Sari hauek 2003´an sortu ziren, **Gonzalo Nardiz Bengoetxea** izenarekin (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailburua 1939´an), 1990ean sortutako "Faunaren Etologia eta Ekologiako Gonzalo Nardiz Sariak" izenari berriro helduz. Gonzalo Nardizek, euskal historiaren garai bereziki gatazkatsuan, biztanleria zibilaren funtsezko eskakizunei erantzuteko zeregina hartu zuen bere gain, sistema demokratikoa defendatzeko eta berrezartzeko lehentasunezko beharrak markatutako testuinguru batean.

**Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza**

## ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILAK NEKAZARITZA-, ELIKAGAI-, ARRANTZA- ETA BASOGINTZA-PRODUKTUAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOTIK KANPOKO MERKATUETAN SUSTATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA EGIN DU

- **“Lehiatu Sustapena” programak 700.000 euro bideratuko ditu horretara.**

Amaia Barredo Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko “Lehiatu Sustapena” programako laguntzen deialdiaren berri eman dio Gobernu Kontseiluari. Guztira 700.000 euro bideratuko dira laguntza horietara.

Laguntzen onuradunek nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-sektoreetakoak izan behar dute, eta mikroenpresetan, enpresa txiki edo ertainetan edo enpresa handietan egon behar dute sartuta. Kontseilu Arautzaileek ere eskuratu ahal izango dituzte laguntza horiek.

Laguntzak honako ehunekoen arabera banatuko dira: laguntzaren % 50 diruz lagundu daitezkeen ekintzak ETEek, Esportazio Partzuergoek edo Kontseilu Arautzaileek egiten dituztenean, kalitate-bereizgarriak dituzten produktuak edo lehengaiaren % 70 Euskal Autonomia Erkidegokoa duten produktuak sustatzeko programa baten bidez.

Laguntzaren % 30 gainerako onuradun-mota guztientzat. Deialdi honetan, LEHIATU SUSTAPENA laguntza-lerroa elikagaien eta edarien industria osoari zuzenduta dago.

**Justizia eta Giza Eskubideak**

## EUSKO JAURLARITZAK 40 BEKA IRAGARRI DITU. BEREN XEDEA DA KARRERA JUDIZIAL ETA FISKALEAN ETA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN LETRADUEN KIDEGOAN SARTZEKO OPOSIZIOAK PRESTATZEN LAGUNTZEA

- **Bekek 6.600 euro bermatuko dituzte urtean; hau da, 550 euro hilean**

Justizia eta Giza Eskubideen Sailak, Maria Jesús San José sailburuak proposatuta, diruz lagunduko ditu karrera judizial eta fiskalean eta Justizia Administrazioko Letraduen Kidegoan sartzeko oposizioak prestatu nahi dituzten pertsonak. Horretarako, Gobernu Kontseiluak 264.000 euroko zuzkidura onartu du gaur, 2025ean 40 beka finantzatu ahal izateko.

Beren ibilbide profesionala karrera judizial eta fiskalean eta Justizia Administrazioko Letraduen Kidegoan garatu nahi duten Zuzenbidean lizentziadunak edo gradudunak motibatzea da deialdi honen helburua, baliabide pertsonal egonkorrak eskainiz eta ikaslearen eraginkortasun- eta kalitate-maila hobetzen lagunduz. Halaber, plantillaren egonkortzea sustatu eta Justiziak eskaintzen duen zerbitzu publikoa hobetu nahi da, biztanleen gogobetetasuna eta horiek Justizia Administrazioan duten konfiantza areagotzeko.

Beka eskatuko duten pertsonen kopurua handitu nahian, zenbait berritasun sartu dira. Esaterako, ikasketa-espedientean gutxienez 6ko nota izatea eta Zuzenbidean lizentzia lortu zenetik zazpi urte gehienez igaro izana eskatzen zuten baldintzak ezabatu dira; eskatzaileak lan egin eta bekaz gozatzeko aukera izango du, bai eta oposizioa espezializatutako ikastetxe baten gidaritzapean prestatzeko ere. Halaber, laguntza hauen % 5 desgaitasuna (% 33ko gradua gutxienez) duten pertsonentzat erreserbatu da.

Beka bakoitzak 6.600 euro emango ditu urtean, 550 euro hilean, 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte, oposizioa prestatzeko espezializatutako ikastetxearen edo eskatzailearen gastuak edo beharrezkoa den material didaktikoari, joan-etorriei edo azterketak hartuko dituen udalerrian eduki beharreko ostatuari edo otorduei loturiko beste gastu batzuk ordaintzeko.

Eskariak aurkezteko epea hil batekoa izango da, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eta elektronikoki egin ahalko da soil-soilik.

## Justizia eta Giza Eskubideak

# GOBERNU KONTSEILUAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALENTZAKO LAGUNTZAK ONARTU DITU, BAKE EPAITEGIEN 2024KO FUNTZIONAMENDUA ESTALTZEKO

Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko udalei zuzenduriko laguntzak onartu ditu, Bake Epaitegien 2024ko funtzionamenduari loturiko gastuak ordain ditzaten. 500.000 euroko aurrekontu-zuzkidura izango dute, udalerriei erakunde judizial hauen ondoriozko gastu operatiboak kudeatzen laguntzeko.

Aurtengo abendura arte Euskal Autonomia Erkidegoan dauden 251 udalerrietatik, 237k Bake Epaitegia dute: 106k Bizkaian, 82k Gipuzkoan eta 49k Araban. 500.000 euroko aurrekontu-sail hau honela banatuko da lurraldeen artean: 229.475 euro Bake Epaitegia duten Bizkaiko udalerrietarako; 168.950 euro Gipuzkoako horietarako eta 66.150 euro Arabako horietarako.

Laguntzak Bake Epaitegia duten udalen artean banatuko dira, ondoko irizpideak aplikatuz: udalerri bakoitzeko biztanleria, espetxe baten presentzia eta, Bake Epaitegien Elkarteen kasuan, inplikaturiko udalek jasaten duten lan-karga.

**Aurrekontu handiagoa**

Deialdi honetarako zuzkidura iazkoa baino % 7,6 handiagoa da, iazko aurrekontua 464.450 eurokoa izan baitzen. Igoera horren zioa da 1.850 euro gehiago aurreikusi direla, hau da, 5.550 euro guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan dauden hiru espetxeak kudeatzeko. Aldaketa hori Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak espetxe-eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoari emateko sinatu zuten akordioaren (2021eko urriaren 1ean sartu zen indarrean) ondorio da.

Deialdi honetako funtsek lau gastu-arlo estaliko dituzte:

1. Argia, gasa, telefonoa, garbiketa eta bulego-materiala bezalako hornidura-gastuak.
2. Epaitegiaren funtzionamenduari loturiko joan-etorrien gastuak.
3. Bake Epaitegietan lan egiten duten udal-langileen ordainsari-kostuen egoztea.
4. Erakunde hauen funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezkoak diren beste gastu arrunt batzuk.

Deialdi honen xedea da beharrezko baliabideak eskaintzea udalei, Bake Epaitegiei dagokienez esleituta dituzten eginkizunak eta eskumenak eraginkortasunez bete ditzaten, Bake Epaitegien funtzionamendua bezalako zerbitzu bat oso garrantzitsua baita biztanleriarentzat.

**Presidencia**

## AYUDAS PARA ATENDER SITUACIONES DE EXTREMA NECESIDAD DE PERSONAS PERTENECIENTES A LAS COLECTIVIDADES VASCAS

El Gobierno Vasco ha dado el visto bueno a la convocatoria de ayudas por un total de 212.000 euros, que serán destinadas este año a los Centros Vascos para atender necesidades asistenciales y situaciones de extrema necesidad de personas que pertenecen a las Colectividades Vascas.

Las ayudas hoy aprobadas permitirán asistir a las personas que, ya sea por la coyuntura de oscilaciones monetarias y deficiencias económicas en algunos países; edad; situaciones carenciales; crisis de salud; o bien por incapacitaciones accidentales sobrevenidas, se encuentran en grave situación de exclusión social.

Además, los solicitantes deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Acreditar la pertenencia a la colectividad vasca,

b) Residir en el extranjero,

c) Carecer de bienes e ingresos que permitan hacer frente a necesidades asistenciales o a situaciones de extrema necesidad, y

d) Residir en domicilios particulares y no pertenecer a organizaciones, comunidades o instituciones que por sus reglas o estatutos estén obligados a prestarles asistencia.

A la hora de conceder las ayudas se valorará la situación económica familiar en relación con la renta media del país, la gravedad de la contingencia sanitaria o de la situación de extrema necesidad, y la adecuación de la petición a las necesidades.

Las ayudas podrán alcanzar hasta el cien por ciento de lo solicitado, con el límite del importe de la Renta Básica vigente en la Comunidad Autónoma Vasca, salvo las ayudas destinadas a hacer frente a contingencias sanitarias, que no tendrán este límite.

Desde su puesta en marcha en 2003, el Gobierno Vasco ha seguido convocando anualmente este programa de ayudas de las que se han beneficiado entre 70 y 112 familias de Argentina, Venezuela, Cuba, Chile y Uruguay, fundamentalmente.

## Seguridad

**EL DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD ACTUALIZARÁ EL SISTEMA HARDWARE Y SOFTWARE DE IBM**

El Consejo de Gobierno ha dado, hoy, luz verde al contrato administrativo para actualizar el hardware y el software de IBM del departamento de Seguridad. El contrato estará destinado al suministro de ciertas licencias de la base instalada, así como de la actualización tecnológica de los nodos del sistema de almacenamiento IBM, servicio de soporte y mantenimiento de las licencias de la base instalada, servicio de Soporte Técnico Avanzado asociados a algunas licencias de IBM. Así el contrato estará en vigor desde el 1 de enero de 2025 al 31 de diciembre de 2027 con un presupuesto de 20 millones de euros que se repartirán de la siguiente manera:

- Año 2025: 8.066.509,71€
- Año 2026: 6.801.733,19€
- Año 2027: 5.839.714,49€

Así el objetivo del contrato será el siguiente:

- Renovar los equipos de proceso actualmente existentes y soporte.
- Ampliar y actualizar el sistema de almacenamiento para atender nuevas demandas.
- Actualizar y renovar las licencias de software de la base instalada
- Servicios de soporte y mantenimiento de todos los productos de IBM, tanto hardware como software.

La Dirección de Gestión de Telecomunicaciones y Sistemas de Información del departamento de Seguridad se encarga de diseñar, implantar y gestionar los sistemas de información y de telecomunicación que sirvan de soporte tecnológico al Sistema de Seguridad Pública de Euskadi siguiendo una estrategia de innovación y liderazgo en la transformación digital. El objetivo es que los agentes participantes en el Sistema de Seguridad Pública de Euskadi dispongan de soluciones tecnológicamente avanzadas y funcionalmente adaptadas a las necesidades actuales y futuras.

**Salud**

**SALUD DESTINA MÁS DE 1,7 MILLONES DE EUROS A AYUDAS PARA EL DESARROLLO DE PLANES LOCALES EN MATERIA DE ADICCIONES**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la Orden por la que el Departamento de Salud del Gobierno Vasco convoca ayudas económicas para apoyar el desarrollo de los planes locales de adicciones en el ámbito comunitario, en el ejercicio 2024.

Estas ayudas, que cuentan con un total de 1.735.900 euros en concepto de ayudas a entidades locales y organizaciones sin ánimo de lucro que realizan su labor en Euskadi, están destinadas al desarrollo de programas de prevención comunitaria, realización de proyectos de prevención y reducción de riesgos y daños en materia de adicciones y promoción de conductas saludables; así como al mantenimiento de los equipos técnicos de prevención comunitaria de las adicciones de distintas entidades locales.

Con el fin de promover la salud en las actuaciones que se llevan a cabo en el ámbito local y desde otros sectores diferentes al sanitario, el Departamento de Salud convoca estas ayudas cuyo objetivo es mantener los programas y proyectos mejor instalados en los ejes de actuación del VIII Plan de Adicciones de Euskadi, identificar nuevas necesidades y apoyar nuevos proyectos que las atiendan, así como contribuir a la mejora de nuevas iniciativas.

De esta forma, el Gobierno Vasco y el Departamento de Salud mantienen su compromiso para abordar y dar respuesta al fenómeno de las adicciones desde un ámbito comunitario, de acuerdo con el VIII Plan de Adicciones de Euskadi que constituye el instrumento de planificación, ordenación y coordinación de todas las estrategias e intervenciones que se desarrollan en Euskadi en materia de adicciones.

Concretamente la ayuda económica se desglosa en dos líneas de subvención de la siguiente manera:

3. Desarrollo de los Planes Locales de Prevención Comunitaria de las Adicciones: 1.174.135 euros
4. Desarrollo de programas de prevención comunitaria de las adicciones adscritos a los Planes locales y de promoción de conductas saludables en este ámbito de actuación: 561.765 euros.

El plazo de presentación se iniciará a partir del día siguiente al de la publicación de la presente orden en el BOPV y finalizará una vez transcurridos 15 días hábiles contados desde el día siguiente a su publicación.

**Salud**

## EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA LA CONVOCATORIA DE AYUDAS A LA PROMOCIÓN DE LA SALUD EN EL ÁMBITO LOCAL

- **El Departamento de Salud destina 250.000 € a estas ayudas que financian proyectos participativos enfocados a mejorar las condiciones de vida de la ciudadanía**
- **Se subvencionarán actuaciones dirigidas a promover la salud, que pueden estar relacionadas con la actividad física, la alimentación saludable, el bienestar emocional, entornos favorecedores de la salud o el bienestar**

El Consejo de Gobierno, a petición del Departamento de Salud, ha aprobado las bases de la convocatoria de **subvenciones dirigidas a actuaciones de promoción de la salud**, en el marco de procesos de participación comunitaria, en el ámbito local de Euskadi durante **2024.**

La finalidad de estas ayudas es financiar proyectos de participación comunitaria enfocados a mejorar las condiciones de vida de quienes habitan el espacio de convivencia; potenciar las capacidades de acción individual y colectiva en procesos de mejora de la salud y el bienestar; y reforzar los vínculos y la cohesión social, incluyendo a colectivos en situación de vulnerabilidad.

Para ello, se subvencionarán actuaciones dirigidas a promover la salud, que pueden estar relacionadas con la **actividad física, la alimentación saludable, el bienestar emocional, entornos favorecedores de la salud o el bienestar**, y otras cuestiones relevantes para la salud y el bienestar de la comunidad.
El Departamento de Salud del Gobierno Vasco destina este año un total de **250.000 euros a esta línea de ayudas que** responde a la apuesta de la Dirección de Salud Pública y Adicciones por la promoción de la salud en el ámbito local como medio para alcanzar un mejor estado de salud de la población.

La concesión de estas ayudas será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que, para la misma finalidad, fueran otorgadas por otras administraciones públicas o entes, públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales; y no podrán superar los 8.000 euros por proyecto, ni los 15.000 euros por entidad beneficiaria, en el caso de presentar más de un proyecto.

A las ayudas, que se podrán solicitar por medios electrónicos en el plazo de un mes a partir de la publicación de la orden en el BOPV, podrán acogerse los municipios, mancomunidades y las demás entidades locales de Euskadi, así como los organismos autónomos locales y las sociedades mercantiles locales.

**Ciencia, Universidades e Innovación**

**ACUERDO POR LA QUE SE CONCEDE UNA AYUDA DIRECTA A LA FUNDACIÓN IKERBASQUE / IKERBASQUE FUNDAZIOA PARA EL IMPULSO A LA CARRERA INVESTIGADORA DE PERSONAL IKERBASQUE RESEARCH ASSOCIATES.**

Con el objetivo de establecer un puente en la carrera científica de Ikerbasque y que diera acceso posterior a la categoría superior de investigadores senior como Research Professors, en 2016 Ikerbasque puso en marcha el programa Ikerbasque Research Associates. Con este nuevo programa de Research Associates, se da respuesta a una propuesta integral de desarrollo de la carrera científica en Euskadi para el personal investigador joven, que bajo determinadas condiciones puede obtener un contrato estable en una universidad o centro de investigación dentro del programa Ikerbasque.

La Dirección de Investigación, mediante la ayuda directa de 1.700.000 euros pretende colaborar en la financiación de los 55 Ikerbasque Research Associates, que han promocionado internamente en Ikerbasque desde la categoría de Ikerbasque Research Fellow.

**Ciencia, Universidades e Innovación**

**ACUERDO POR LA QUE SE CONCEDE UNA AYUDA DIRECTA A BCMATERIALS PARA LA IMPLEMENTACIÓN DE LOS LABORATORIOS DE ENERGÍA, NANOQUÍMICA, MATERIALES PARA REMEDIACIÓN MEDIOAMBIENTAL Y MICROFABRICACIÓN**

Para la consolidación de BCMaterials como centro de referencia internacional, un elemento esencial es la expansión del centro, con la creación de espacios adecuados para la incorporación de investigadores e investigadoras así como de laboratorios de investigación específicos para las diferentes líneas y áreas.
Gracias a la concesión de esta ayuda, se implementarán cuatro laboratorios con los que se dará respuesta a una serie de necesidades científicas y tecnológicas de nuestro entorno más próximo, tanto a nivel universitario, como industrial y social.

La Dirección de Investigación, mediante la ayuda directa de 800.000 euros pretende colaborar en la financiación de la implementación de los laboratorios de energía, nanoquímica, materiales para remediación medioambiental y microfabricación.

**Ciencia, Universidades e Innovación**

## ORDEN POR LA QUE SE CONVOCA EL PROGRAMA DE MOVILIDAD DEL PERSONAL INVESTIGADOR DOCTOR

El objeto de la presente orden es convocar en régimen de concurrencia competitiva ayudas para la realización de estancias en centros de investigación, con el fin de impulsar la movilidad geográfica del profesorado universitario e investigadores de los organismos y centros de I+D+i, y mejorar sus capacidades y la competitividad de los grupos de investigación.

El personal investigador deberá desarrollar durante su estancia un proyecto de investigación que se encuentre integrado en la línea de trabajo del equipo receptor u otro tipo de actuaciones tendentes al establecimiento de intercambios y vínculos científicos de alto nivel.

El programa de movilidad de personal investigador doctor se desarrolla a través de dos modalidades:
A.-Modalidad A: movilidad de personal investigador senior, destinada al personal permanente.
B.-Modalidad B: movilidad de personal investigador junior, destinada al personal no permanente. Será requisito en esta modalidad que el personal solicitante ocupe una plaza de personal docente y/o investigador en vías de consolidación.

En concreto, se admitirá personal que pertenezca a los siguientes programas o categorías: programa Ikerbasque Research Fellow, profesorado Ayudante Doctor, profesorado Adjunto, programa Ramón y Cajal, programa Juan de la Cierva incorporación, programa Miguel Servet.

**Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca**

## EL DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA CONVOCA LOS XXI PREMIOS «GONZALO NÁRDIZ» A LAS TRAYECTORIAS PROFESIONALES EN LOS SECTORES AGRARIO Y PESQUERO 2024.

- **Dirigidos a personas o colectivos: una escultura fundida en bronce de la obra original de Jabier Herrero titulada "*Hiru Elementuak*"**

El Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca ha convocado los **Premios «*Gonzalo Nardiz Bengoetxea*»** a las trayectorias profesionales en los sectores agrario y pesquero para el año 2024. A ellos podrán ser beneficiarias aquellas personas o colectivos que, habiéndose destacado por la labor llevada a cabo en los sectores agrario y pesquero hayan desarrollado su trayectoria profesional fundamentalmente en el País Vasco de forma consolidada y prolongada en el tiempo.

Según ha comentado la Consejera **Amaia Barredo** en el Consejo de Gobierno, las candidaturas a los premios deberán presentarse con el **apoyo de, al menos, dos agentes sectoriales** del País Vasco y, en todo caso, deberán contar con la aceptación de la persona o colectivo designados como personas candidatas.

Esos **proponentes** sectoriales serán las organizaciones profesionales de carácter sindical; asociaciones profesionales y empresariales, así como sus federaciones y confederaciones, sectores agrario y pesquero; otras asociaciones y federaciones; Fundaciones; Cofradías de Pescadores; cooperativas y profesionales de los sectores agrario y pesquero y de la industria alimentaria.

El **plazo** de presentación de las candidaturas será de un mes desde el día siguiente al de la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Los premios para la convocatoria de 2024 consistirán, cada uno de ellos, en una distinción honorífica y en la celebración de un acto de reconocimiento público. En el acto de reconocimiento se les entregarán tres esculturas fundidas en bronce de la obra original de Jabier Herrero titulada "**Hiru Elementuak**", que fue especialmente creada por el autor para los premios *Gonzalo Nardiz Bengoetxea*.

Estos galardones nacieron en **2003**, con el nombre de **Gonzalo Nardiz Bengoetxea**, (Consejero de Agricultura del Gobierno de Euzkadi en 1939), retomando el nombre de los que fueran "*Premios Gonzalo Nardiz de Etología y Ecología de la Fauna*" creados en 1990.

Gonzalo Nardiz, en un período especialmente conflictivo de la historia vasca, asumió la tarea de atender los requerimientos fundamentales de la población civil en un contexto marcado por la prioritaria necesidad de defender y restablecer el sistema democrático.

**Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca**

## EL DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA CONVOCA LAS AYUDAS A LA PROMOCIÓN DE LOS PRODUCTOS AGRARIOS, ALIMENTARIOS, PESQUEROS Y FORESTALES EN MERCADOS EXTERIORES AL PAÍS VASCO

- **El "Programa Lehiatu Promoción" dedica a ello 700.000 euros.**

La Consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, Amaia Barredo, ha informado al Consejo de Gobierno de la convocatoria de las ayudas a la promoción de los productos agrarios, alimentarios, pesqueros y forestales en mercados exteriores al País Vasco, "Programa Lehiatu Promoción". En total se dedicarán a ello 700.000 euros.

Las personas beneficiarias de las ayudas han de pertenecer a los sectores agrario, alimentario, pesquero y forestal e incluidas en microempresas, pequeña, mediana empresa o gran empresa. También podrán acceder a ellas los Consejos Reguladores.

Las ayudas se otorgarán con los siguientes porcentajes: el 50% de ayuda cuando las acciones subvencionables sean realizadas por PYMEs, Consorcios de Exportación o Consejos Reguladores, mediante un Programa de Promoción de productos con distintivos de calidad o de productos en los que un 70% de su materia prima proceda del País Vasco.

El 30% de ayuda para todos los restantes tipos de beneficiarios. En esta convocatoria, la línea de ayudas LEHIATU PROMOCIÓN va dirigida a toda la industria de alimentación y bebidas.

**Justicia y Derechos Humanos**

## EL GOBIERNO VASCO CONVOCA 40 BECAS PARA PREPARAR EL ACCESO A LAS CARRERAS JUDICIAL Y FISCAL Y AL CUERPO DE LETRADOS DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA

- **Las becas serán de 6.600 euros anuales, a razón de 550 euros al mes**

El Departamento de Justicia y Derechos Humanos, a propuesta de la consejera Maria Jesús San José, ofrecerá ayudas económicas a las personas que quieran preparar oposiciones a las carreras judicial y fiscal, así como al Cuerpo de Letrados de la Administración de Justicia. Con este objetivo, el Consejo de Gobierno ha aprobado hoy una dotación de 264.000 euros con la que se financiarán 40 becas en 2025.

Esta convocatoria busca motivar a las personas licenciadas o graduadas en Derecho para que dirijan sus aspiraciones profesionales hacia las carreras judicial y fiscal y al Cuerpo de Letrados de la Administración de Justicia, facilitando así medios personales estables y contribuyendo con ello a un mejor grado de eficacia y calidad. Se trata, además, de propiciar la estabilidad de las plantillas y con ello el adecuado nivel de calidad del servicio público de la Justicia que incremente la satisfacción y confianza de la ciudadanía en la Administración de Justicia.

Con el fin de ampliar el número de personas solicitantes en la convocatoria, se han introducido diversas novedades. Así, por ejemplo, se ha prescindido del requisito de tener una nota mínima de 6 en el expediente académico y el de no haber transcurrido más de siete años desde la obtención de la titulación en Derecho; la posibilidad de compatibilizar el trabajo de la persona solicitante con el disfrute de la beca, y de estudiar la oposición bajo la dirección de un centro especializado. Asimismo, se ha reservado un porcentaje del 5% de estas ayudas para personas con un grado de discapacidad igual o superior al 33%.

El importe de cada una de las becas será de 6.600 euros anuales a razón de 550 euros al mes, desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre de 2025 para sufragar los gastos del centro especializado de preparación de la oposición o a la persona preparadora, así como aquellos otros gastos de material didáctico necesarios para el estudio, desplazamientos, alojamiento o manutención en la localidad donde se celebren los exámenes.

El plazo de presentación de las solicitudes será de un mes desde el día siguiente de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco, y se tramitará únicamente de manera electrónica.

**Justicia y Derechos Humanos**

## EL CONSEJO DE GOBIERNO AUTORIZA LA CONCESIÓN DE AYUDAS A LOS AYUNTAMIENTOS DEL PAÍS VASCO PARA EL FUNCIONAMIENTO DE LOS JUZGADOS DE PAZ EN 2024

El Consejo de Gobierno ha autorizado la concesión de ayudas dirigidas a los ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco para cubrir los gastos de funcionamiento de los Juzgados de Paz durante el año 2024. Con una partida presupuestaria de 500.000 euros, estas ayudas están destinadas a apoyar a los municipios en la gestión de los gastos operativos derivados de estos órganos judiciales.

En Euskadi, de los 251 municipios existentes hasta diciembre de este año, 237 cuentan con Juzgados de Paz, distribuidos entre Bizkaia (106), Gipuzkoa (82) y Álava (49). La distribución de los 500.000 euros de esta partida presupuestaria por territorios se realizará de la siguiente manera: 229.475 euros para los ayuntamientos con Juzgados de Paz en Bizkaia, 168.950 euros para los de Gipuzkoa y 66.150 euros para los de Álava.

Las ayudas se distribuirán entre los ayuntamientos que cuenten con un Juzgado de Paz, considerando diversos criterios: la población de cada municipio, la presencia de un centro penitenciario y, en el caso de las Agrupaciones de Juzgados de Paz, la carga de trabajo que soportan los ayuntamientos involucrados.

### Incremento del presupuesto

La partida destinada a esta convocatoria supone un incremento del 7,6% respecto al año anterior, cuando el presupuesto ascendía a 464.450 euros. Este aumento responde a la inclusión de 1.850 euros adicionales por la gestión de los tres centros penitenciarios ubicados en los tres territorios históricos de la Comunidad Autónoma Vasca, lo que suma un total de 5.550 euros. Este ajuste está relacionado con el acuerdo alcanzado entre el Gobierno de España y el Gobierno Vasco sobre el traspaso de las competencias penitenciarias al País Vasco, que fue efectivo el 1 de octubre de 2021.

Los fondos de esta convocatoria cubrirán cuatro áreas de gasto:
1. Los costes de suministros como luz, gas, teléfono, limpieza y material de oficina.
2. Los gastos de desplazamiento relacionados con el funcionamiento del juzgado.
3. La imputación de los costes salariales del personal municipal que presta servicio en los Juzgados de Paz.
4. Otros gastos corrientes necesarios para asegurar el adecuado funcionamiento de estos órganos.

El objetivo de esta convocatoria es proporcionar a los ayuntamientos los recursos necesarios para cumplir eficazmente con las funciones y competencias que tienen atribuidas en relación con los Juzgados de Paz, un servicio que resulta relevante para la ciudadanía, como es el funcionamiento de los juzgados de paz.